



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

HAUTESKUNDE BATZORDEA

Bilbon, 2021eko urtarrilaren 11n, Euskadiko Futbol Federakundeko Hauteskunde Batzordea bileran elkartuta,

AURREKARIAK

Bizkaiko Futbol Federakundearen mezu elektronikoko bat jaso zen Euskadiko Futbol Federakundean 2021. urteko urtarrilaren 7an. Mezu horri erantsita iritsi zen lurralde federakunde horretako Hauteskunde Batzordearen idatzi bat, eta, bertan, labur-labur adierazita zekarren "*badela berezitasun bat Bizkaiko Futbol Federakundearen Batzar Nagusiaren osaerari dagokionez, eta Hauteskunde Batzordeak kontuan hartu behar duela...*". Amaitzeko, hau zioen: "*Hori ikusita, Bizkaiko Futbol Federakundearen Hauteskunde Batzorde honek modalitateen eta estamentuen araberako banaketa honako hau izan behar duela erabaki du:...*"

Aurrekariak finkatu ondoren, eta gaia sakon jorratzen hasi aurretik, lehenik eta behin adierazi behar dugu Hauteskunde Batzorde honi harrigarria iruditzen zaiola Bizkaiko Futbol Federakundeak idazki bat aurkeztea, ez baitu behin ere adierazi Euskadiko Futbol Federakundearen Batzar Nagusiaren osaerari helegitea jarri zaionik, Bizkaiko Futbol Federakundearen estamentuetan ordezkariak esleitzeari dagokion gaiaren inguruan. Azken batean, ez da adierazi Hauteskunde Batzorde honen erabakia aurkaratu denik, nahiz eta egindako eskaera ekonomia printzipio baten arabera ebatziko dugun.

Bigarren, Bizkaiko Futbol Federakundeko Hauteskunde Batzordearen aktako edukiarekin batera ados ez gaudela adierazi behar dugu, idatziaren lehen orrialdeko azken paragrafoan honako hau adierazten baitu: "*Hori ikusita, Bizkaiko Futbol*



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

*Federakundearen Hauteskunde Batzorde honek modalitateen eta estamentuen arabera banaketa honela egitea **erabaki du**:”, atal hori guk geuk azpimarratu dugu, betiere aintzat hartuta lurralde federakundeetako estamentu bakoitzeko kideak esleitzeko eskumena Euskadiko Futbol Federakundeko Hauteskunde Batzordearen eskumen **bakarra eta esklusiboa** dela, hari soilik dagokiona.*

Beren-beregi horrela ezarrita dago lurralde federakunde bakoitzaren ordezkariak esleitzeari buruzko 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 55. artikuluan, honako hau adierazita:

1.- *Euskal federakundearen Batzar Nagusiko kideak hautatzeko prozesua lurralde federakunde bakoitzeko ordezkariak esleitzearekin hasiko da. **Euskal Federakundeko Hauteskunde Batzordeak egindako esleipen hori** lurralde federakundeek estamentu bakoitzean duten kide kopuruarekiko proportzionala izango da, euskal futbol federakundearen kopuru osoa aintzat hartuta.*

2.- *Ordezkariak esleitze hori **hauteskunde egintza bat da, eta, beraz, Hauteskunde Batzordean bertan helegitea aurkeztu ahal izango zaio.***

3.- *Lurralde federakunde bakoitzeko ordezkariak **euskal federakunde bakoitzeko Hauteskunde Batzordeak esleituko ditu**, bakoitzaren errolda, artxibo edo fitxategien arabera, eta lurralde federakundeei eskatu ahal izan zaien gainerako dokumentazioaren arabera.”*

Gainera, Euskadiko Futbol Federakundearen Estatutuetako Batzar Nagusiaren osakerari buruzko 23.3 artikuluan ondorengo hau dago jasota: *"Kideen kopurua guztira 125 kidekoa izango da. Lurralde Federakundeei estamentuen arabera egokituko zaizkien kideen kopuru zehatza **Hauteskunde Batzordeak** zehaztuko*



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

du hauteskundeak baino lehen, onetsitako hautesle-errola aintzat hartuta”.

Beste hainbeste adierazita dago Euskadiko Futbol Federakundeko hauteskunde araudiko 28. artikuluan, era honetan: *“Hauteskunde prozesua hasteko, Hauteskunde Batzordeak dagokion hauteskunde egutegia osatu eta onartuko du, eta urte olinpikoaren hurrengo urtarrilaren 31 baino lehen amaituko du.*

Ondoren, Hauteskunde Batzordeak lurralde federakunde bakoitzari esleituko dio federakunde horretako batzarrean estamentu bakoitzari dagokion ordezkari kopurua, lurralde federakundeek estamentu bakoitzean izena emanda duten afiliatu kopuruaren proportzioaren arabera, Euskal Federazioaren erroldan bertan erroldatutako afiliatu guztia aintzat hartuta.

Ordezkariak esleitze hori hauteskunde egintza bat da, dagozkion ondorioetarako, eta Hauteskunde Batzordearen beraren aurrean jarri ahal izango zaio helegitea.”

Lehenago aipatutako guztiaren inguruan, argi dago Hauteskunde Batzorde hau dela estamentu bakoitzeko ordezkariak Euskadiko Futbol Federakundearen Batzar Orokorrari esleitzeko eskumena duen erakunde bakarra.

Gaiaren funtsari helduz, adierazi behar dugu eztabaida 2017an sortu zela Bizkaiko Futbol Federakundearen estatutu berriak onetsi zirenean. Estatutu horietan, batzar orokorraren osaera 150 kidetik 100era murriztu zuten, 24. artikulua arabera era honetan banatuta: kideen %90, hau da, 90 kide futbol modalitatekoak izan behar dira, eta %10 areto-futbol modalitatekoak, hau da, 10 kide areto-futbol modalitatekoak. Jarraian, 25. artikuluan adierazita dago estamentuetako ordezkariak honako hau izango dela: kideen %80



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

kirol klub en eta elkarteen estamentukoa, %5 kirolariek osatuko dute, eta gainerako %15 teknikariek eta epaileek.

Datu horien arabera, ondorioa da, lehen esan dugun bezala, Bizkaiko Futbol Federakundeko Batzar Nagusia 100 kidek osatzen dutela, eta honela osatuta dagoela:

Zelai Futboleko 72 kirol klub edo elkarte.

Areto Futboleko 8 kirol klub edo elkarte.

Zelai Futboleko 4 jokalaria.

Areto Futboleko jokalaria 1.

Zelai Futboleko 6 entrenatzaile.

Areto Futboleko entrenatzaile 1.

Zelai Futboleko 6 arbitro edo epaile.

Areto Futboleko arbitro edo epailerik ez (0).

Bizkaiko Futbol Federakundeari 71 kide dagozkio Euskadiko Futbol Federakundearen Batzar Nagusian, errolda osoaren ehuneko 56,8, iazko ekainaren 30ean izena emanda zituzten kideen kopuruaren arabera.

Euskadiko Futbol Federakundearen Estatutuen 23. artikuluan jasota dagoenez, Batzar Nagusiak 125 kide izango ditu, eta, 14. artikuluan jasota dagoenaren arabera, horren osaera era honetan banatuko da: %70 klub en estamentuko kideek, %15 kirolariek, eta %15 teknikariek eta epaileek.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Ikus dezakegunez, ez datoz bat ez kide-kopurua, 125 versus 100, ez eta estamentu bakoitzerako ehunekoak ere; hori dela eta, matematikak aplikatuta, Hauteskunde Batzorde honek esleipena gauzatu zuen orain errekurritu den ebazpenean.

Esleipen horrekin, Bizkaiko Futbol Federakundeak 71 kide izango lituzke Euskadiko Futbol Federakundearen Batzar Nagusian, honela banatuta: 10 kide jokalarien estamentuan, zelai-futboleko 9 eta areto-futboleko bat; 49 klubuen estamentuan, 46 zelai-futbolean eta 3 areto-futbolean; teknikari estamentuko 6 kide, zelai-futboleko 5 eta areto-futboleko 1; eta 6 epaile edo arbitro, zelai-futboleko 5 eta areto-futboleko 1.

Jokalarien estamentuan Bizkaiko Lurralde Batzar Nagusiak 5 biltzarkide baino gehiago ez dituenez, ezingo lituzke bete estamentu horretan Euskadiko Batzar Nagusian egokituko litzaizkiokeen 10 postuak; izan ere, bost jokalaria soilik ditu, eta areto-futboleko modalitatean epaileen estamentuan egokituko litzaiokeena ere ezingo luke bete, ez baitu bakar bat ere.

Eta hor sartzen da jokoan, hain zuzen, Kultura sailburuaren 2012ko otsailaren 19ko Aginduaren 42. artikuluan xedatuta dagoena, *Estamenturik eza eta hautagai gutxiegi izatea* izenburupean, hitzez hitz honako hau dioena:

*“1.- Baldin eta federakunde jakin batean estamentu jakin bat ez badago, **gainerako estamentuek era proportzionalen gehitu ahal izango dute euren ordezkaritza Batzar Nagusian.** Baldin eta hautagai guztiekin ere ezin bada arauz dagokion gutxieneko ordezkaritza lortu, ordezkaritza postu hutsak ere gainerako hautagaiei **esleituko zaizkie proportzioaren arabera**.....”*

*3.- Lanpostu hutsak beste estamentu batzuei esleitzeko irizpidea **hauteskunde erregelamenduetan edo, halakorik izan ezean,***



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Hauteskunde Batzordean ezarri beharko da. Ez da onartuko lurralde federakunde bati dagozkion ordezkaritza hutsak beste lurralde federakunde batzuetako ordezkariekin betetzea.”

Artikulu horrek ezartzen duenez, bi hipotesietan, baldin eta estamentu bateko ordezkariarik ez badago, edo ordezkari hautagairik ez badago, hutsak era proportzionalen esleituko dira. Horren arabera, emaitza hau lortuko dugu:

Klub eta kirol entitateen estamentuan 54, 50 zelai-futbolekoak eta 4 areto-futbolekoak.

Jokalarien estamentuan 5, 4 zelai-futbolekoak eta areto-futboleko bat.

Epaileen estamentuan 6, guztiak ere zelai-futbolekoak.

Eta teknikarien estamentuan 6, 5 zelai-futbolekoak eta areto-futboleko bat.

Aipatutako egitateak, legezko aginduak eta oro har aplikatu beharreko gainerakoak aztertuta

ERABAKI DU

1.- Bizkaiko Futbol Federakundeari ondorengo ordezkari hauek esleitzea Euskadiko Futbol Federakundearen Batzar Nagusian:

Z.F.eko klubak: 50.

A.F.eko klubak: 4.

Z.F.eko jokalariai: 4.

A.F.eko jokalariai: 1.

Z.F.eko arbitroak: 6.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

A.F.eko arbitroak: 0.

Z.F.eko entrenatzaileak: 5.

A.F.eko entrenatzaileak: 1.

Honako ebazpen honen aurka, helegitea aurkez daiteke Kirol Diziplinako Euskal Batzordean, zazpi egun balioduneko epean, Euskadiko Futbol Federakundearen hauteskunde araudiaren 11. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera.

Jakinaraz bekie ebazpen hau Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako Futbol Federakundeei; ebazpen hau haien egoitzetan jendaurrean erakutsi beharko da.

Presidentea

Batzordekidea

Idazkaria